

noaua

Larunbat honetan,
IV. Dantza Eguna

Errausketaren Aurkako
Plataforma osatuko da
larunbat honetan

Andatzker, mendian
lasterka aritzen
direnen bilgunea



Senior mailako neskak ere,
Euskadiko txapeldun



FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693

Baxoalde 4 behea, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

Usurbilen,
auto tailer berria!

Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

DOHAITNIK

EuroTailer

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

Terraza
zerbitzua!

xapeldun
taberna

- pintxoak • razioak
- ogitartekoak
- plater konbinatuak
- eguneko platera

munalurra 2, USURBIL

Albistea iruditan

Aginagako Elizak 50 urte beteko ditu, itxuraberriturik

Aginagako Asisko Franzisko Deuna Parrokia inauguratu zela 50 urte beteko dira, datorren maiatzaren lehenean. Mende erdia itxura berrituta ospatuko dute. Gune eraberritua azaroa bukaeran inauguratu baitzuten, berritze lanak amaitu ostean. “Data garrantzitsu hori ospatu nahi dugu. Ospatzeko modukoa da”, adierazi diote NOAUA!ri Aginagako Parrokiatik. Urtemuga egunerako ospakizunak iragarri dituzte. “Zure presentzia oso garrantzitsua da, espero zaitugu, ospa dezagun data garrantzitsu hau elkarrekin”, luzatzen diete gonbita herri-tarrei. Honatx deitu dituzten ekimenak:

Maiatzak 1, igandea

12:00 Meza Aginagako Elizan.

14:00 Bazkaria Aginaga Sagardotegian. Menuaren prezioa: 30 euro.



Argazkia azarokoa da. Konponketa lanetan ari ziren orduan. Honez gero amaitu dituzte berrikuntzak. Urteurren ekitaldia maiatzaren 1erako iragarri berri dute.

Izen emateko: apirilaren 27a baino lehen, Aginagako Eizan edo 637 902 096

(Mariangeles) edo 649 540 236 (Antonio) telefono zenbakietan.

Laburrean

Musika saioa, Bihurritxiki ludotekan

Olatz Korta eta Xabier Zubeldiaren emandua ostiral honetan, apirilaren 22an, 18:00etan Bihurritxiki ludotekan. 0-6 urte arteko haurrei zuzendua egongo da saioa.

Apirilaren 29an, azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso, iheslari eta haien senideen eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzeko, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzea apirilaren 29an 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Danele Sarriugarte idazlearen bisita

Danele Sarriugarteren “Erraiak” liburua aztertuko dute apirilaren 27an, 19:00etan Sutegiko irakurketa topaketan. Idazlea ere bertan izango da. Liburuko aleak aurrez eskura ditzakezue liburutegian.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldia. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Idolia Torregarai

Urtebetetzeak

Apirila urtebetetze hilabetea da. Nireak betetzeaz gain, amarenak eta hainbat lagunena ere izaten dira, eta inpresioa dut 30 egunak opari, tarta, eta zorion-agurrez inguraturuta pasatzen ditudala.

Gai honetan ere gauzak asko aldatu dira. Internet eta telefono mugikor adimentsuak eduki aurretik, zure familiak, lagun minek eta memoria ikaragarria duen ikastolako ikaskide horrek zoriontzen zintuen. Opari batzuk jaso, pote batzuetara gonbidatu eta hortxe bukatzen zen eguna. Orain berriz, ai ama, orain norberaren urtebetetzea kudeatzeko eguna libre hartu behar duzu! Waxap bidez jasotzen dituzun mezuak erantzun (waxap talde-takoak gainera egunean behin baino gehiago), Facebook bidez bidaltzen dizkizuten mezu eta

argazki polit horiei "atsegin dut" eman eta erantzun pertsonal bat idatzi, eta (oraindik) telefonoz deitzera ausartzen direnekin tertuliatxo batetarako tarteak aurkitu behar duzu. Martxa honetan, laster idazkari bat kontratatu beharko dugu hori guzti hori tajuz eramateko!

Gero abesten dizuten une hori dago. Bai, maite zaituzten horiek Donostiako Orfeoia izango balira bezala elkartu eta "Zorionak zuri" abesten dizuten une hori. Zer egiten duzu une horretan? Batzuk poker aurpegia jartzen dute, irribarre arraro bat, poza edo beldur-errena den ez dakiguna. Beste batzuk gorrotatu egiten dute beraietara abestea, eta benetan gaizki pasatzen dute. Azkenik, badaude (tartean ni) koroarekin bat egin eta gure buruari abesten diogunak denak emanda, gozatuz. Baina ez

pentasa, letrarekin ere egon daitezke gorabeherak. Niri lantokian gertatzen zait "zorionak zuri, zorionak BETI..." abesten dudala, eta lankideek "zorionak zuri, zorionak ZURI". Tentsio handiko uneak izaten dira, eta azkenean letra bat adostea erabaki dugu: "Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak (jarri hemen dagokion izena), bihotz bihotzetik". Eta denok konforme geratu gara.

Goian aipatu dut gauza asko aldatu direla alor honetan, baina bada gauza bat berdin jarraitzen duena: merendoteko menua. Moldeko ogiarekin egindako txorizo eta nozilla triangeluak (azken hauek beti lehenak bukatzen dira orain ere), gusanitoak (berrikuntza da ketxup zapoarekin izan daitezkeela) eta patata frijituak dira falta ezin duten elikagaiak. Hori laguntzeko, nola ez, limoi

eta laranja freskagarriak (bigarren honek ez du hainbeste arrakasta izaten) eta nola ez, kola edari famatua ere bai. Eta bukatzeko bizkotxo tarta eder bat. Hemen aldaketa txiki bat egon da, izan ere, gure garaiko bizkotxoak ez zuen apaingarri askorik, nata pixka bat edo. Baina oraingokoak gozotegi guztia bizkotxoaren gainera erori dela ematen du: lakasitoak, goxokiak, gominolak,... zer ez duzun aurkituko bertan. Eta noski, menu hori jan eta gero, haurrei azukre maila topera jartzen zaie, dopatuta daude, eta hurrengo ordu betean hobe leku ireki batean badaude beraien sakarosa-energia guztia askatzeko!

Indar asko behar da urtebetetzei aurre giteko. Eta oraindik apirila ez da bukatu. Zorionak ta muxu bat, zuretzako.

Aritz Gorriti | **Idolia Torregarai** | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Imanol Ubeda

TOKIKOMeko Administrazio Kontseilua, Mozal Legearen aurka

TOKIKOMen Administrazio Kontseiluak aurreko asteazkenean eginiko bileran, "Mozal legea" aplikatu dioten Axier Lopez kazetariari eta Argiako lan taldeari elkartzuna eta babes osoa adierazi zion. Kazetaritza lana egiteagatik, 601 euroko isuna jarri zioten Lopezi, polizia operazio baten irudiak sare-ratzeagatik.

Lehen aldia da, halako zigor bat jarri diotena Euskal Herriko kazetari bati. Informazio eskubidearen eta oro har gizarte osoaren aurkako

erasotzat jo du TOKIKOMek, Lopezi eta Argiari jarri dioten isuna.

Tokikomen Administrazio Kontseiluaren adierazpena

"Idatzi honen bidez, TOKIKOMen Administrazio Kontseiluak bere elkartzun eta babes eskaini nahi die Axier Lopez kazetariari eta Argiaren lan talde osoari, Naroa Ariznabarretaren atxilotetaren berri emateagatik zigorra jaso duten honetan.

Espainiako Gobernuak Herritarren Segurtasunerako 4/2015 Lege

Organikoa, "Mozal legea" gisa eza-gutzen dena aplikatuz ezarri du zigorra. Lege hori eraso zuzena da herritarrek informatuta egoteko zein kazetariak informazioa emateko duten eskubidearen aurka. Informazioa jaso eta emateko eskubide horiek gizarte demokratiko baten funtsezko oinarriak dira. Eskubide horiek gauzatzea delitu bilakatzea, beraz, gizarte osoaren aurkako eraso da, eta hala salatu nahi dugu mezu honen bidez".

NOAUA! astekaria TOKIKOMeko kide da.

Sari bat bi lagunentzat

Saria bakarra izan arren, apirileko Tipi-Tapako sarituak bi izan dira. 150 euroko erosketa balea irudiko bi lagunegi egokitu zaie; Maite Zubeldia eta Marian Bustamantieri. Hurrengo pintxo festa, maiatzaren 8an.



150 euroko balea Maite Zubeldia eta Marian Bustamantierentzat izan da.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 29. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 25.

Errenta Aitorpena euskaraz tramitatzeko deia

Ohi bezala, aurten ere, errentaren gainera aitorpena egite-rakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, "eta oso modu errazean gainera: lehen urratetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukera dezakete, hau da, euskaraz egiteko ez dago inolako zailtasunik", gogorarazten digute Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzuti-k. Udalak, Buruntzaldeko udalekin, eta UEMA-rekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz tramitatzeko kanpaina abiatu du.

Administrazioarekin ditugun harremanak euskaraz izatea eta Administrazioa bera euskalduntzea sustatu nahi dute, eremu honetan ere "euskarak merezi duen lekua



Ekainaren 25era arte zabalik dago errenta aitorpena egiteko epea.

izan dezan".

Kanpaina honen harira, aurreko urteen ildotik, lehiaketa antolatuta dute; "Buruntzaldeko Facebook-en lehiaketa bat jarriko da abian, eta mezua elkarbanatzen dutenen artean bi laguntzako sagardotegi menua zozketatuko da maiatzaren 17an".

Informazio gehiago, Potxoe-nean, Euskara Zerbitzuan eta buruntzaldea.eus atarian. Gogoan izan, errenta aitorpena aurkezteko epea ekainaren 25era arte dago zabalik. Errenta Aitorpena tramitatzeko bideak: 902 100 040 edo gipuzkoa.eus/ogasuna

1966ko kinto afarian izena emateko azken egunak

Aurten mende erdia beteko duten herritarrentzako kinto afaria antolatu dute maiatzaren 14an Olarrondo jatetxean. Iluntzeko 21:00etarako jarri dute biltzeko hitzordua, baina antolatzaileek ohartarazi dutenez, "nahi duenarentzat afalaurretik 19:00etan Bordatxon elkartuko gara".

Apirilaren 30ean amaituko da izen-ematea

- Maiatzak 14 larunbata.
- Ordua: 21:00etan.
- Olarrondo jatetxean.
- Afaritarako izena, apirilaren 30a baino lehen eman beharko da. 45 euroko ordainketa egin beharko da, kontu zenbaki honetan: ES41 2095 5069 0091 1591 6891.

Ika-mika

Erraustegirik ez (1)

"Inoiz ez ziguten galdetu nahi dugun edo ez, baina hor jarri digute", "txoriak ia desagertu egin dira", "karakolak asko gutxitu dira".

Hitz hauek, bi hilabete inguru telebistan baserritar batzuei entzundakoak dira. Beraien aurpegia ikusi eta ahotsa entzutea baino deigarriagoa egin zitzaidan atzean ikusten zen tximiniaren irudi erraldoia. Baserritarrak erraustegiaren inguruan bizi dira eta kutsadurak naturari (pertsonek parte da) egiten dion kaltea zenbaterainokoa den adierazten ari zitzaizkidanez, lerro hauek itsastea erabaki dut.

Apirilean gaude eta urtea hasi dugunetik erraustegiaren inguruko albisteak kutsaduraz beteta daudela ikusten dugu.

Orain gutxi, Anberesen (Flandria), erraustegi batean leherketa izan zela jakin dugu. Urte hasieran jakin genuen Madrilgo 49 zenbakiko epaitegiak Vallecás auzoaren ondoan dagoen Valdemingomez-

ko errauste-plantak minbiziarekin eduki lezakeen lotura ikertu behar dela esan izana. Salaketa, minbizia duten 36 pertsonen jarria izan da eta erraustegiaren ondoan bizi dira. Otsailean, Europako nazio ezberdinetan egindako ikerketa sakon eta sendo baten ondorioen berri ematen ziguten OEIT mediku taldeak (Osasuna eta Erraustegia Ikerketa Taldeak).

Bertan, erraustegiaren kokagunetik 10 kilometroko erradioan gaixotasunak areagotu egiten direla zioten: leuzemia %21 gehiagotzen dela, pleura %84 gehiago eta behazuneko minbizia %24 gehiago. Medikuek talde berak aste honetan esandakoa da: erraustegi planta batetik gertu bizi diren guneetan heriotza tasa orokorra %13 igo daitekeela. Ez dezagun ahaztu Zubietan eraiki nahi duten erraustegi horren kokagunetik 10 kilometroko erradioan, 200.000 pertsonatik gora bizi garelako. Ohartzen garen

bezalaxe, 2015. urtean Bizkaiko Zabalgarbi plantak (izen ederra jarri zioten) 235.000 tona CO2 isuri ditu airera (Registro Estatal de Emisiones y Fuentes Contaminantes-ek esana).

Egoera kutsakor eta kaltegarri honen aurrean, Gipuzkoako Diputazioan agintzen dauden PNV-PSE alderdiek berriz, Zubietan eraiki nahi digute erraustegia. Naturan oinarritutako zilegitasunik ba al dute alderdi horiek Zubietan erraustegia eraikitzeke nahiz eta inguruari orain "Complejo Medioambiental de Gipuzkoa" izena jarri? Natura kutsatzen duen planta bat eraikitzea ez al da ingurumenaren aurka joatea? Foru Aldundiak ez al du ezer esan behar erraustegi baten osasunean eragiten dituen kalteen inguruan? Osasunari buruzko azterketarik egin al du? Eta egin badu, zergatik ez ditu plazaratu? Zeren beldur da? Biztanleok ez al dugu erraustegiak gure osasunean

izan ditzakeen kalteak jakiteko eskubiderik?

Ezin dugu ahaztu Gipuzkoako biztanelariak urteetan erraustegiaren aurka daraman borroka. Ezagutu berri ditugun Usurbilgo emaitzek (2015) garbi adierazten dute eta Gipuzkoako hainbat herritako birziklatze tasa altuek ere berdin.

Otsailaren 19an Usurbilgo frontoiaren atzean bildu ginen jubilatutaldea bat. Bertan irakurri genuen idatzian honela esaten genuen: "ez diegu gure seme-alabei eta bilobatzoei horrelako herentziarik utzi nahi". Gaur are eta ozenago ekartzen ditut hitz horiek lerro hauetara. Ondorengoek eskertuko digutenez, ez gaitezen utzikieran erori eta borrokan jarrai dezagun bizimodu jasangarriago eta osasuntsuago baten alde.

Erraustegirik ez Zubietan eta ez inon.

Larunbatean, kalea dantzaleku

IV. DANTZA EGUNA OSPATUKO DA, ORBELDI DANTZA TALDEAREN EKIMENEZ



Argazkian, iazko Dantza Eguneko partaide batzuk. 75 bat lagun arituko dira larunbat gaueko ikuskizunean.

Dantza batean etorri bezala joango zaigu larunbat hau, apirilaren 23a, 2013. urteaz geroztik, Usurbilgo kultur eskaintzako agendan txoko propioa duen Dantza Eguna ospatuko da eta.

Laugarren edizioa, indartsu dator gainera. Aurreko edizioetan jendartearen aldetik izan duen babes handiaz gain, oraingoan estreinakoz, Dantza Taldea bakarrik ez, Dantza Eguna bera diruz lagundu du Usurbilgo Udalak, ekimen hau sustatu eta antolakuntza lanean parte hartzeko egiten duen apustuaren adierazgarri. Horri esker, “egun oso bat antolatze-ko aukera izan dugu”, adierazi

digute Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldetik.

Festa partehartzailea

Dantza Egun parte hartzailea izango da honakoa. Hiru zutabe nagusiren bueltan eraiki dute egitaraua; dantza taldeen topaketa goizean. Eta arratsalde parterako, erromeri gidatua. Iruñeako Ortzadar taldea dator Usurbila, “musika entzunez herritarrei dantza egitera animatzera. Arratsaldeko ekitaldi hau, herritarrak parte hartzeko eta ondo pasatzeko antolatua dugu. Ia sustatzen dugun dantzarako grin hori”.

Eta eguneko unerik zirrargarriena, gauean biziko dugu; azken hilabeteotan Udarregi Ikastolako lau hormen barruan

ontzen aritu diren “Kanpaiak Jotzean” ikuskizunarekin. Ez da nolanhikoa mugitu duten jende kopurua, eta eginko ahalegina. Orbeldi Dantza Taldearen esanetan, dantzari, antzezle eta teknikarien artean, guztira 70-75 bat lagun mobilizatu dituzte. Eta taldekide bakoitzak bere aldetik, nahiz kolektibo osoak hila-beteotan eginko ahalegina itzela izan da. “Ilusio handia jarri dugu. Aurten inoiz baino entsegu orokor gehiago egin ditugu. Saiotuan ikusten joan gara ze akats dauden, zer hobetu behar zen, zerri eman behar genion garrantzia, jendeak emanaldia hobeto ulertu ahal izateko”, adierazi digute dantza taldetik.

Usurbilgo misterio bati lotutako ikuskizuna

Aurreko urteetan harrera beroa izan du, eta txalotua izan da benetan, Dantza Eguna borobiltzeko usurbildarrek eskaini ohi duten ikuskizuna. Aurtengoari buruz ezin ezer aurreratu; pista moduan ordea esan daiteke, emanaldiarekin lotura estua duela kalean egunotan ikusiko zenituzten Dantza Eguna iragartzeko kartelak. Aurrean zabalik duen leihotik, Usurbilgo elizara begira ageri den lagun baten itzala ageri da kartelotan. Bigarren pista bat ere aurrerat digute antolatzaileek. “Misterio puntua izango du ikuskizunak. Herri honek duen misterio bati loturiko emanaldia izango da. Misterio horri erantzun bat eman nahian gabilitza”, adierazi digute dantza taldetik. Osagai aski erakargarriak baditu aurtengo Dantza Egunak. Larunbatean beraz, dantzara plazara.

Dantza Taldea, kide berriei zabalik

Eta ez apirilaren 23an bakarrik. Dantza Taldean parte hartzera gonbidatzen diete baita herritarrei. Berreziki gazteei eta baita gizonetzkoiei ere.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LOGOPEDIA
Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

“Entseguetan oso giro ona izan dugu”

1- Zer da Dantza Egunetik gogokoen duzuna?

2- Nola bizi izan dituzu ikuskizuneko prestaketa lanak?

3- Zergatik ez genuke galdu behar IV. Dantza Eguna?



Unax Lasa, Asier Angulo

1- Dantza Egunean, dantzaren inguruan egoten den giro alai eta polita. Gaueko jaialdia ere oso berezia eta polita izaten da. Bazkaria ere izaten du Dantza Taldeak eta hor ere oso ondo pasatzen dugu.

2- Talde bakoitzak hasieran bere kasa entseatzen du, berari tokatzen zaion zatia. Eta gero, jaialdia hurbiltzen den neurrian, egiten dira entsegu orokorrak. Beti dago zer hobetua, baina azkenerako ondo ateratzen da. Oso giro lagunkoia dago, denok elkar ezagutzen dugu, denon artean konfiantza sortzen da. Ez dago lotsarik gainerakoen aurrean dantza egiteko. Lan giro oso polita sortzen da.

3- Euskal kulturaren zati handia da euskal dantza. Urteotan beherantz doa zoritxarrez. Uste dugu ez dela galdu behar eta jendea taldera proba egitera etorriko balitz, gustatu egingo litzaioke. Haur eta gazteak animatu nahi genituzke; ez izateko lotsarik, euskal dan-

tzetan apuntatzeko. Merezi du. Probatzeko behintzat, eta ikusiko dute, gustatuko zaie.

Dantza Eguna ere ez dugu uste galdu behar denik. Oso giro polita izaten da. Herritarrek ere dantzetan parte hartzeko aukera izaten dute. Oso jaialdi borobila eta ederra ateratzen da.



Eva Fariña

1- Dena. Batez ere giroa eta adin ezberdinetako jendartearen dugun harremana. Eta gero ikuskizuna. Muntaketa ikusgarria da. Oso polita, oso ondo pentsatu eta landutakoa.

2- Entseguetan oso giro ona izan dugu. Ahalik eta hoberen egiten saiatzen gara, batzuetan asmatzen da besteetan ez. Hasierako ideia, gure erara moldatzen eta lantzen joaten gara. Baina garrantzitsuena, gorputza mugitu, kirol pixka bat egin, barre egin eta ondo

pasatzen da. Borondatez gaude, gustatzen zaigulako gaude dantzan.

3- Dantza Eguna eta Usurbilgo Dantza Taldea zaindu beharra dago. Ia gazte gehiago animatzen diren. Espero dugu larunbateko ikuskizuna guztiei gustatzea eta gure lana ikustea.



Kontxi Irureta

1- Parte hartzea. Eguna oso polita izaten da goizetik hasita. Gauez dantza egin behar izaten dugunez, tartean urduritasuna ere izaten da. Gero herriko jendea ere beti zain egoten da, ikuskizunean zer egin behar dugun eza-gutu nahian, beti animatzen.

2- Hasieran zailtasunak sortu ahala, moldatzen joan gara, lana errazten. Batzuetan ez da ateratzen, baina ikasi egiten da. Giro ederrean aritzen gara beti. Beti barrez egoten gara, oso ondo pasatzen dugu. Eguna gertura-

tu ahala ere, urduriago ere bai, baina pozik. Herrian lehendik ezagunak genituen herritarrekin harremanatzeko aukera ematen digu dantza taldeak.

3- Arratsaldean erromeria izango denez, dantzara animatzeko, parte hartzeko, han izango gara denok. Giro polita egongo da. Eta Dantza Taldean parte hartzera ere animatu.

IV. Dantza Eguneko egitaraua

Apirilak 23 larunbata

■ 11:00 Dantza Taldeei harrera. Partehartzaileak:

-Ortzadar Dantza Taldea (Lekunberri).

-Goizaldi Dantza Taldea (Donostia).

-Orbeldi Dantza Taldea (Usurbil).

■ 12:00 Kalejiraren hasiera. Herriko gune desberdinetan geldialdiak egingo dira dantza saioak eskaintzeko.

■ 13:30 Ekitaldi Nagusia frontoian.

■ 14:30 Dantzarien Bazkaria.

■ 18:00 Erromeria frontoian, Ortzadar taldearekin.

■ 22:30 “Kanpaiak Jotzean” ikuskizuna, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik.

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Patria Jatebidea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Tallak 36-60
INQUIETUD
JANTZI-DENDA
Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak eragileekin eta erakundeekin bildu nahi du

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuen agerraldian eskaera bat egin zuen: “gure datuak azaldu eta datuok aintzat hartzea nahi dugu, erabaki bat hartzerako orduan”.

Jose Cruz Ruiz de Villandiego eta Maialen Berridi medikuen esanetan, gutun formal bat landu dute bilera eskaerak egiteko eta aurreratu dutenez, harremanetan jarri dira eragile askorekin. “Esaterako, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Eusko Legebiltzarra, Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Foru Aldundia, alderdi politiko guztiak, Zubietan inguruko zinegotzi eta alkateak, sindikatuak eta eragile sozialekin”, adierazi dute.

“Gure esku dagoen guztia egingu dugu”

Bereziki, erraustegia eraikitze-ko ardura dutenekin biltzeko nahia agertu dute. “Gure esku dagoen guztia egingo dugu lehenbailehen biltzeko errauskailua eraiki ala ez erabakitzeko azken hitza duten organismo eta erakundeekin. Aurrez aurre esan nahi dieguna da



Argazkian, Jose Cruz Ruiz de Villandiego eta Maialen Berridi medikuak.

OEIT

“Instituzioei esan nahi diegu gure argudioak entzuteko eta gurekin hitz egin eta gero hartu ditzatela erabakiak, guretzako ez delako erabaki zuzena errausketa planta egitea Zubietan”

datozen asteotan, Gipuzkoaren etorkizuna eta jende askoren osasunari buruz erabakiko dutela, errauskailuek minbizi sortzen dutela, azterketa askok hala adierazten dutela eta, gutxienez, ardura printzipioa aplikatu dezatela. Gaia arduraz hartuz, ez luketela Zubietan errauskailu bat eraiki behar”,

adierazi dute. Bileran hauek gain, Gipuzkoako Batzar Nagusietan agerraldia egingo dutela ere iragarri dute, “data jartzeko zain gaude”.

Errausketa eta gaixotasunak, estuki lotuta

Errausketa eta gaixotasunaren areagotzea estuki lotzen dituzten nazioarteko hainbat ikerketa zientifiko entzutetsuetan bildu dituzten datuak ezagutarazten aritu da hilabeteotan, OEIT. “Txosten epidemiologikoak ikertu ditugu eta horietan lortu ditugun emaitzak plazaratzen izan gara orain arte. Emaitza horiek oso esanguratsuak dira eta frogatuta daude hainbat txostenetan”, adierazi dute.

Mediku talde honen hitzaldiek ikusmina sortu dute

“Hainbat tokitan hitzaldiak ematen aritu gara, prentsan ere oihartzun handia izan dugu eta gaia kalean dagoela ikusi dugu. Jendar-tean kezka nabaria da. Jendeak kezka handia du bere osasunaren inguruan eta kezka handia du errauste planta batek sor ditzakeen gaixotasunen inguruan”, azpimarratu dute. Hitzaldiak eskaintzeko eskaera gehiago jasotzen ari dira Gipuzkoako udalerrri gehiagotatik. Bide hau jorratzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute. OEITko medikuek hala nahi duten eragile guzti-ekin biltzeko jarrera azaldu dute.

Edozein erabaki hartu baino lehen eurekin hitz egiteko eskaera egin zuten apirilaren 11n. “Gipuzkoako Foru Aldundiari esan nahi diegu gure argudioak entzuteko eta gurekin hitz egin eta gero hartu ditzatela erabakiak, guretzako ez delako erabaki zuzena errausketa planta egitea Zubietan”, diote.

Erraustegia, “sekulako arriskua ingurukoentzat”

Eraikitzen badute, Zubietan urtero 200.000 tona hondakin erreko dira. Horrek, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldearen esanetan, “sekulako arriskua suposatzen du inguruan bizi direnen osasunarentzat”. Hilkortasun tasaren eta gaixotasunaren areagotzea ekarriko duela dio OEIT taldeak:

■ %13 hazi daiteke heriotza-tasa orokorra, erraustegi batetik gertu bizi diren herritarren artean.

■ %3,5 areagotuko dira minbizi

kasuak, erraustegitik 3,5 kilometroko eremuan bizi diren herritarren artean.

■ Zenbait minbizi mota ordea “asko areagotuko liriateke”: biriketako %14 gehiago, gibelkoa %29 gehiago, leuzemia kasuen ondoriozko heriotza-tasa %21 gehiago, pleurazko minbiziaren ondoriozko heriotza-tasa %84 gehiago, behazuneko minbiziaren ondoriozko heriotza tasa %24 gehiago.

■ Sortzetiko malformazioak, abortu eta erditze goiztiar gehiago egongo liriateke.

Denis Itxaso, agerraldi gunean

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldearen Koldo Mitxelena Kulturunean agerraldia ordu laurden pasatxo atzeratu behar izan zuten, leku berean egiten ari ziren beste aurkezpen ekitaldi bat tarteko zela. Aurkezpen honetan par-

te hartu zutenen artean zen, errauste planta eraiki nahi duen Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz, Denis Itxaso Kultura Diputatua, 2015. urteko uda partera arte, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakaria izandakoa. Aretora atarian zegoen OEIT-ren agerraldia hasi zenean, aretora ere sartu zen une batean. Baina mediku taldeak Aldundiarekin biltzeko egindako deiaren berri jaso gabe joan zen.

Errausketaren Aurkako Plataforma osatzeko deia

DEIALDI IREKIA DA ETA LARUNBAT HONETARAKO IPINI DUTE HITZORDUA: 11:00ETAN ARTZABALEN

Erraustegiaren aurrean, “usurbildarrok gure aurkako jarreran tinko jarraituko dugu. Horretarako, beste urrats bat ematera goaz”. Gai honekin kezka izateaz gain, “konpromisoak hartzeko prest dauden herritar guztiei egiten diegu deialdia”, Errausketaren Aurkako Plataformatik aditzera eman digutenez.



Artzabalen batuko dira. Larunbat honetan goizeko 11:00etan hasiko da bilera.

NOAUA! Sentsibilizazio arloan, Erraustegia Erabakia taldea nabarmendu da azkenaldian. Talde horren segida izango al da Plataforma berri hau edo ez du zerikusirik?

Errausketaren Aurkako Plataformak. Ez da horren segida, norberak bere arloa du. Sortu behar den Usurbilgo Errausketaren Aurkako Taldea herrian dugun hutsunea betetzera dator. Une honetan Usurbilen badago talde bat baino gehiago erraustegiaren inguruan murgilduta, adibidez, bere seme alaben osasunaz kezkatuta dauden gurasoena (GuraSOS), edo aipatu duzun Erraustegia Erabakia, galdeketa bultzatu duena. Baina Usurbilen ez dugu talde bat erraustegiaren kontrako ekintzak, orokorrean, koordinatzeko edo antolatzeko. Deialdiak etortzen dira, eta ez dago garbi norengana jo.

Gipuzkoan Errausketaren Aurkako Mugimendua lanean ari da, eta behar da herri bakoitzean talde bat prest egotea, modu azkarrean deiak zabalteko eta antolatzen laguntzeko. Erraustegia geldiarazten laguntzeko prest dagoen jendea behar da.

ERRAUSKETAREN AURKAKO PLATAFORMA

“Usurbildarrek osatutako taldea behar dugu, herrian ekintzak antolatzeko, eta kanpotik datozen deialdiei eusteko”. Maiatzeko giza-katea sustatzeko, besteak beste

Zeintzuk izango dira Usurbilgo Errausketaren Aurkako Taldearen egitekoak?

E. A. T. Herriari bizkarra emanez erraustegia inposatu nahi dutenak urratsak ematen ari dira. Mehatxu hori jendea mugiarazten ari da, eta deialdiak ugaltzen ari dira, azkena, maiatzaren 29an Onkologikoa eta Foru Aldundia lotuko dituen giza-katea. Horrelako ekintzak antolatzeko laguntza behar da herriz herri.

Bestetik, Usurbilen sortutako ideiak eta proposamenak jasotzeko eta lantzeko taldea ere behar da, ezin da sortu talde berri bat proposamen bat dagoen

bakoitzean.

Kontua da erraustegiaren aurkako mugimenduak erreferentzia argia edukitzea Usurbilen, jakitea norengana jo Usurbilen erraustegiaren aurkako ezer dagoenean.

N. Usurbilgo herritarrei zuzendua dagoen ekimena da hau, ala lurralde osoan arituko al da lanean?

E. A. T. Usurbildarrek osatutako taldea behar dugu, herrian ekintzak antolatzeko, eta kanpotik datozen deialdiei eusteko. Gipuzkoa mailako ekintzak, Onkologikoa bezalakoak, Gipuzkoa osoko taldeek osatzen duten Errausketaren Aurkako Mugimenduak bultzatzen ditu.

N. Talde honetan parte hartu nahi duenak zer egin dezake?

E. A. T. Larunbatean agertu batzar horretara, edo, ezin badu, batzarrera joango den norbaiti jakinarazi bere prestutasuna. Bileraren helburua jendea elkartzea da, jakiteko nor dagoen prest laguntzeko deialdi edo proposamen bat dagoenean.

Hainbat deialdi datozen egunetarako

Apirilak 22, ostirala

■ 18:30 Hitzaldia Potxoenean: “Zer gertatzen da Bizkaiko Zabalgarbi erraustegian?”

■ Hizlaria: Gorka Bueno Mendieta, EHU-ko irakaslea eta ingeniariaren doktorea. Antolatzailea: Erraustegia Erabakia.

Apirilak 23, larunbata

■ 11:00 Errausketaren Aurkako Taldearen aurkezpena Artzabalen.

Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Taldea.

Maiatzak 20/22

■ Maiatzaren 20tik 22ra, proiektu suntsitzaileen (tar-tean erraustegiaren) aurkako Txirrinka bizikleta martxa gure artean igaroko da, “Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu! AHT eta proiektu txikitzaileak borrokatu!” aldarripean.

Maiatzak 29, igandea

■ 11:30 Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea Donostian, Onkologikoa hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza pareraino.

■ Luzeera: 5 kilometro inguru. Gutxieneko beharrezko parte hartzea: 5.000 lagun.

Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.


ARRANDEGIA PELLO
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ALDAMU

KONPONKETAK
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Andatzker, mendian korrika aritzen direnen topalekua

Andatza eta Akerra hitzak batzen ditu Andatzker izenak. Andatza mendian entrenatzen dutelako; eta akerratik asko duelako mendi lasterkari batek. Bere kasa aritzen ziren entrenatzen. Bidean elkar topo egiten zuten, eta egun batean elkartzen hasi ziren. Aurrena hiru lagun, beste kide batzuk batu ziren ondoren, eta orain 20 bat dira Andatzker taldeko kide.

Andatzker taldeak ez du elkarte izaerarik. WhatsApp talde batean batuta daude. Hori bai, federatuta daude ia gehienak. Mendian korrika aritzea dute gustuko. Lehian aritzeko dute gustuko. Lehian aritzeko baina, elkarrekin une atsegin bat pasatzeko asmoz batzen dira. Zuk ere mendian korrika ibiltzeko joera baduzu, toki bat duzu Andatzker taldean.

NOAUA! Mendi lasterketetan ateratzen den jendea batu zarete. Nola sortu zen talde bat osatzeko ideia? Eta noiztik dago martxan?

Arkaitz Rezola. Bakarka ibiltzen ginen, bakoitza bere kasa. Elkartu eta batera entrenatzeko hasi ginen batzen, eta lasterketara ere batera joateko.

Koldo Lertzundi. Whatsapp talde bat gara, ez gehiago.

N. Ez zaudete talde bezala antolatuta?

K. L. Talde bat gara, baina ez dugu ez CIFik, ezta antzerik ere. Lagun talde bat gara, entrenatzeko eta lasterketara elkarrekin joateko. 20 bat lagun gaude, baina gero norbait mendian harrapatzen badugu ere, gure taldera batzera animatzen dugu. Alde horretatik oso informala da.



WhatsApp talde batean batzen dira Andatzker-eko kideak. Bertan egiten dituzte entrenatzeko nahiz lasterketara joateko planak. Argazkian, aurreko igandean Berako lasterketan partehartu zuten kideak.

ARKAITZ REZOLA

“Entrenatzeko garaian, bakarrik joatea baino errezagoa da taldean aritzea. Lasterketetan elkarrekin joateko ere lagungarria da taldea”

N. Noiztik zaudete elkarrekin?

Eta zenbat lagun zarete?

Jon Zubizarreta. Duela bi urte t'erdi hasi ginen WhatsApp taldearekin.

K. L. Hogeitabost bat lagun batzen gara.

A. R. Entrenatzeko adibidez, bakarrik joatea baino errezagoa da taldean aritzea. Lasterketetan elkarrekin joateko ere lagungarria da. Baita egutegian diren lasterketa ezberdinen be-

rri izateko ere.

Elkar informatzeko asko bali du WhatsApp taldeak.

N. Lasterketetara ere batera joateko ohitura al duzue?

Beñat Bereziartua. Bai, baina gure helburua ez da lehiatzea. Elkartzea eta mendira joatea baizik. Batzuk ez dira lasterketetan ateratzen, entrenatzen bakarrik animatzen dira.

“Aurreko batean orkatz bat ikusi genuen eta berarekin korrika joan ginen denbora puska batean”

NOAUA! Zer du mendiak, asfaltoak ez duena?

A. R. Oso ezberdina da. Denborak beste batzuk dira.

K. L. Entrenatzeko erritmoak ezberdinak dira.

A. R. Asfaltoan denborak oso antzekoak dira. Mendian ez du zerikusirik kilometroko zer nolako denbora egiten duzun.

J. Z. Kilometroa hainbeste denboran egitea daukazu as-

faltoan, baina mendian ezin duzu denbora horrela neurtu. Beste gauza bat da iazko mendi lasterketa bat hiru orduan egin bazenuen, aurten denbora gutxiagoan egin nahi izatea.

K. L. Bestetik, mendian denbora askoz errazago pasatzen zaizu. Konturatzerako ordu t'erdi joan zaizu. Eta ordekan ordu t'erdi egin eta jada saturatuta zaude.

J. Z. Kontzentrazio handia eskatzen dizu mendiak.

K. L. Eta askoz atseginagoa da mendian aritzea. Eta denbora askoz errazago pasatzen da. Mendian zaude, naturan korrika, zuhaitzen artean.

A. R. Aurreko batean orkatz bat ikusi genuen eta berarekin korrika joan ginen denbora puska batean. Beste batean perretxiku batzuk topatuko dituzu...

“Helburua ez da lehiatzea; kirola egitea baizik. Eta kirola eginez, ondo pasatzea”

NOAUA! Kexu ugari izan dira azken urteotan. Korrika aritze-ko, nola dago Andatza ingurua?

B. B. Berdin, berdin. Egia esan azken hiru urteotan Andatzaren egoera tamalgarria da. Andatza Mendi Taldekoak kexu agertu ziren, bizikletan ibiltzen direnak ere bai... Berdin berdin jarraitzen du.

K. L. Zuhaitzak ateratzen dituztenean sortzen den lokatzarekin batez ere. Baina ezberdina da. Bizikletakoei gehiago eragiten die, guri ez digu modu berean eragiten.

N. Ze lasterketetan aritzen zarete?

K. L. Euskal Herria mailan, garai honetan (udaberriari eta uda hasi arte) ia astero daude lasterketak.

J. Z. Batez ere Euskal Herria mailan ibiltzen gara gu.

K. L. Iaz Andatzker taldeko kide guztien artean, 35 lasterketa



“Taldeko ia gehienak asfaltoan hasi ginen korrika baina mendian bukatu dugu”.

KOLDO LERTXUNDI

“Iaz Andatzker taldeko kide guztien artean 35 lasterketa osatu genituen. Denetariko probetan ibili ginen: luzeak, motzak eta baita mendikoak ez diren ere”

osatu genituen. Denetariko probetan ibili ginen: luzeak, motzak eta baita mendikoak ez diren ere.

N. Proba denen artean, baduzue kuttunen bat?

A. R. Gehienak Berako lasterketara joaten gara. Larrunera igo eta jaitsi egiten gara. Maratoi

erdiko proba da. Hamaiketako ederra dauka gainera. Kuttuna da batez ere horregatik kar, kar, kar...

K. L. Sekulako antolakuntza dute.

N. Nola egin daiteke bat Andatzker taldeko kide?

A. R. Guregana hurbiltzeko. Hori onena. WhatsApp taldean sartuko dugu.

K. L. Edonork ditu ateak zabalik. Helburua ez da lehiatzea; kirola egitea baizik. Eta kirola eginez gozatzea, eta ondo pasatzea.

N. Baduzue egun jakinen bat entrenatzeko?

K. L. Orain arte, igandetan goizeko 8:00etan jarri izan dugu hitzordua. Baina lasterketa luzeagoak prestatzen ari bagara, batzuk lehenago abiatzen gara.

J. Z. Uztailean, 112 km-koa egiteko asmoa dugu Andorran.

Larunbat honetan Oiardo kiroldegian, Tximeleta taldeen topaketa

Aurreko urteetan bezala, Dantza Egunez gimnasia erritmikoa ikusteko aukera aparta izango da. Kirol jarduera honetan aritzen diren Tximeleta taldeen Topaketa ospatuko da apirilaren 23an egun osoz, Oiardo Kiroldegian, 09:00-18:00 artean.

“Donostia, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Astigarraga eta inguruko 20 ikastola eta ikastetxe desberdinetako 300 neska-mutil inguruk parte hartuko dute”, adierazi dute antolatzaileek.

Topaketarako sarrera doakoa izango da. “Egun osoan zehar

gimnastika erritmikoa ikusteko aukera edukiko duzue dohainik. Txikienek pilota eta uztaiekin egingo dute emaldia eta handienak berriz, uztai-mazoekin eta xingola-pilotarekin lehiatuko dira. Eta bakarka zein taldeko modalitateak izango ditugu. Parte hartzaileak benjamin, alebin eta infantilak dira. Tximeleta taldetik familia eta lagun guztiei, aldeztu aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu beti erakusten duzuen jarrera eta laguntza positiboagatik. Animatu eta etorri egunaz gozatzea!”, luzatu dute gonbita.

Apirilak 23, larunbata Oiardo Kiroldegian

■ Orduetaria: 09:00-18:00.

■ Tokia: Oiardo Kiroldegia.

■ Parte hartuko duten taldeak: “Donostia, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Astigarraga eta inguruko 20 ikastola eta ikastetxe desberdinetako 300 neska-mutilek hartuko dute parte”.

■ Sarrera: doan.

■ Txandak:

09:40-11:15 Lehen txanda.

12:10-13:50 Bigarren txanda.

16:25-17:50 Hirugarren txanda.



Donostia, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Astigarraga... 300dik gora neska-mutil hurbilduko dira Oiardo kiroldegira.

Usurbil KE-ko senior neskak, Euskadiko txapeldunak

Asteburuan zehar Oiardo Kiroldegian jokatu den azken faseko hiru neurketak irabazi ostean, aurten ere Euskadiko txapeldunak ditugu Usurbil Kirol Elkarteko senior neskak. Zorionak! Asteburu eta denboraldi osoan egin duten lan itzelaren emaitza, entrenatzaile eta jokalarien aurpegieta nabari zen. Pozik asko ziren. Garaipena etxean eta etxekoe-kin, asteburua harmailak goraino bete dituzten kirol elkarteko kideekin, lagun eta senideekin partekatu nahi izan zuten igandean.

Garaipen bikoitza gainera. Euskadiko txapelketa irabazteaz gain, Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko faserako ere sailkatu baitira senior neskak. Zozketa bidez erabakiko da non jokatuko duten fasea.

Igoera fasea, Sagardo Egunaren bueltan

Zehaztua dago jada, noiz izango den; Sagardo Egunaren aurreko asteburuan, maiatzaren 13tik 15era. Usurbil K.E.-tik adierazi digutenez, “hemendik aurrera ere lana dago egiteko, eta irabaztea polita bada ere, ekonomikoki oso garestia da. Errifak atera ditugu eta errifa batzuk erosiz edo errifak eurak saltzen lagun daiteke. Orokorrean, edozein guraso, herritar, enpresa, komertzio edota jokalaria laguntzeko prest balego, jar daitezela kirol elkartearekin kontaktuan usurbilke@gmail.com helbidean edo zuzendaritzako kideekin”.

Harmailetan egon direnekin esker onez

Laguntzarako dei honekin batera, eskubaloi taldeen elkar-



Jubenil taldeko jokalarien laguntza ere jaso zuten senior taldeko neskek.

BALENTRIA BIKOITZA

“Euskadiko txapelketa irabazteaz gain, Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko faserako ere sailkatu dira senior neskak”

etik eskerrak helarazi nahi dizkiete, asteburuan Oiardo

Kiroldegiko “harmailak leporaino bete dituzten herritarrei”.

Hiru neurketetatik hirurak irabazi

Euskadiko Txapelketako azken faseko hiru neurketatik hirurak irabazi zituzten. Une bitxirik ere bizi izan zen. Usurbil K.E.-ren aurkarietako

bat Bera Bera baitzen. Bertan jokatzeko dabil, Lur Errekondo usurbildarra. Usurbildarren arteko lehia bizia izan zen ostiralean.

Sailkapena

1-Usurbil K.E.	6
2-GF Zuazo	4
3-Indupime Basauri	2
4-Bera Bera	0

Jubenil neskak, Espainiako Txapelketan

Senior neskak Euskadiko txapeldunak ditugula aipatu berri dugu. Taldea garaipenera eraman duten jokalarien artean, aipatzekoa da, jubenil nesken parte hartzea ere. Topera dabilta. Duela bi aste, Euskadiko txapelketako azken fasea jokatu eta irabazi egin zuten. Pasa den asteburuan senior taldekoak laguntzen aritu eta Euskadiko txapeldun amaitu zuten berriz ere.

Ostiral honetan, Pozuelo de Calatrava (Ciudad Real) Espainiako Txapelketa jokatzera

doaz jubenil nesken taldekoak. Apirilaren 22tik 24ra jokatu dute aipatu fasea, C. Pozuelo de Calatrava (Gaztela Mantxako lehen sailkatua), BM. Nazareno (Andaluziako laugarren sailkatua), eta EMD Aceuchal (Extremadurako lehen talde sailkatua) taldeen aurka.

Harrobi-lana

Aipatu baita, “jubenil eta kadete neska-mutilak, 4 taldeak, Euskal ligan mantendu dira, eskubaloi maila gorena jubenil eta kadete kategorietan. 2015-2016 denboraldian Usurbil izan

da talde bakarra, Zarautzekin batera, 4 taldeok Euskal Ligan zituena eskubaloiari”.

Lehen Nazionaleko taldea, mailari eusteko bidean

Eskubaloi elkartetik aditzera eman digutenez, “1. Nazionaleko senior taldeak 21-25 irabazi zuten asteburuan Romoren aurka Getxon, eta beste urtebetez 1. Nazional mailan mantentzeko bidean goaz, hiru jardunaldiren faltan 12. goaz. Atzean lau talde utzita, hurrengoari 5 puntu aterata. Bi talde jaitsiko dira mailaz”.

Udajolasen izena emateko orriak datorren astean banatuko dira

Apirilaren 25eko astean banatuko dira Udajolasen izen emate orriak, Udarregi Ikastolan, Zubieta eta Aginagako ikastetxeetan. Izen emate orriok beteta, ordainketa eginda eta aurten, gizarte segurantzaren txartelaren kopia ere aurkeztu beharko dira, Udajolasen parte hartu ahal izateko. Usurbilgo Udalak NOAUA! Kultur Elkartearekin elkarlanean antolaturiko euskarazko aisialdi ekimenean apuntatzeko epea, maiatzaren 2an zabalduko dugu. Zehaztasun gehiagoren berri, datorren astekarian.



Datorren asteleheneetik aurrera banatuko dira Udajolaseko izen-emate orriak Udarregi Ikastolan eta Zubieta zein Aginagako ikastetxeetan. Baina apuntatzeko epea maiatzaren 2an zabalduko da.

Aurre izen-ematea abiarazi dute Zubietako udako txokoetan

Zubietako Guraso Elkar-
teak 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko txokoak antolatu ditu uztaila eta abuzturako. Interesdunentzako, zabalik dute aurre izen ematea, apirilaren 30era arte. 20 euroko ordainketa egin eta inskripzio orri bat bete beharko da, "norberaren beharrak zehaztuz".

Apuntaturiko haur kopurua eta zehazten dituzten beharren arabera behin betiko egitaraua finkatu eta matri-

kulazio epea zabalduko dute, maiatzaren 2tik 20ra. Tarte horretan, "matrikula orria bete beharko da eta epe barruan bakoitzak dagokion kuota ordaindu beharko du".

Emalez edo Eskolan

Izen emateko idatzi zubietatxoko@gmail.com helbidera edo bestela, Zubietako Eskolan eskura ditzakezue inskripzio orriak. "Epez-kanpo izen ematen duenak ez du tokia ziurtaturik izango. Izen eman gabeko edo matrikula ordaindu gabe-

ko haurrak ez dira onartuko", ohartarazi dute antolatzaileek.

Hamabostaldika

Lasarte-Oriako Ttakun Elkar-
teak kudeatuko dituen txokoak asteleheneetik ostiralera izango dira uztaila eta abuztuan, goizez eta lau orduz, 09:30-13:30 artean. Txoko hauek hamabostaldika antolatuko dira. "Haurrek lagun artean jolastu, tailerretan parte hartu, irteerak egin eta abar luze bat egiteko aukera izango dute", berri eman dute antolatzaileek.

Ate irekien eguna, Haur Eskolan

Ireki berri dute Haur Eskolan, 2016-17 ikasturterako matrikulazio epea. Matrikulazioa goizez bideratu beharko da, 09:30-12:30 artean. Horretarako ordea, aurrez hitzordua eskatu 943 374 061 telefono zenbakian. Honi lotuta, ate irekien eguna antolatu dute apirilaren 26rako; 17:00etan euskaraz, 18:00etan erdaraz.

Ate irekien eguna, Lasarte-Usurbil Institutuan

Apirilaren 27an, 17:30ean. Hezkuntza proiektua aurkeztuko dute eta instalakuntzak ezagutzeko aukera izango da. Informazio gehiago: instilasarte.hezkuntza.net, 943 372 852/943 372 277, lasarte-bhi@instilasarte.net

Sagardoaren Lurraldea

ezagutzeko irteera

Sagardoaren Lurraldea eta lurralde honetako udalen arteko elkarlanaren emaitza da ibilaldia. Iaz hasi ziren antolatzen, apirileko azken igandean. Duela urtebete, Astigarragatik Usurbila antolatu zuten irteera eta udalerriotako hainbat interes gune bisitatzeko aukera izan zuten.

Igande honetan, Astigarragatik irten eta Hernanira joatea proposatzen digute. Jardunaldiaren amaieran, Hernaniko Akarregi sagardo-
tegian bazkaria egingo da.

■ Izen ematea: 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Jaietan oholtza, herritarren esku



Ixabel Agirresarobe 'Urrutiko intxaurrak hamalau' emanaldia antolatzen hasi da: "osagaiak behar ditut. Herritar edo elkarte orok, usurbildarrei zuen produktua eskaini nahi badiozue hemen duzue aukera".

Ekainaren 29an, gaueko 22:00etan frontoiko oholtza gaina zuena izango da. Beraz, partehartze gogoz denak, aitzakiarik ez du. Orain arte aukerarik izan ez eta esketx bat antzeztu, bertsoak bota, abestu, argazkiak proiektatu edota txistekin publikoa barrez lehtarazi nahi baduzue, zuena izango da oholtza, datozen herriko festen atarian. 'Urrutiko intxaurrak hamalau' izeneko emanaldia antolatzen ari da Ixabel Agirresarobe. Baina berak ondo baino hobeto aipatu digunez, ikuskizunerako "osagaiak behar ditut. Herritar edo elkarte orok, usurbildarrei zuen produktua eskaini nahi badiozue hemen duzue aukera".

16 urte beteak izatea

Parte hartzeko ezinbestekoa izango da 16 urte beteak izatea. Gutxienez bost bat minutuko saioa eskaini beharko da. Saio bat baino gehiago eskaini nahi dituenak, ekitaldian zehar tartekatze aukera izango du. Ekitaldi arteko lotura Ixabelek berak egingo du. Saio xumea behar du izan, baliabide askorik eskatzen ez duena. Oholtza gaina tresnez betetzea saihestu nahi da, denek nahi duten emanaldia eskaintzeko tokia izan dezaten.

Aldez aurretik izena eman

Oholtza gainean usurbildarrei

SANTIXABEL JAIEN BAITAN

"Orain arte aukerarik izan ez eta esketx bat antzeztu, bertsoak bota, abestu, argazkiak proiektatu edota txistekin publikoa barrez lehtarazi nahi baduzue, ekainaren 29an zuena izan daiteke oholtza"

zer eskainia duzuela pentsatzen duzuenok, eman izena maiatzaren 15a baino lehen, ixabel.agirresarobe@gmail.com helbidean edo 675 712 383 telefono zenbakian. Edozein zalantza argitzeko ere.

Izen ematerakoan, eskaini nahi duzuen saio labur horren zehaztasunen berri eman; edukia, iraupena, beharko dituzuen baliabideak. Baliabideez ari garela, antolatzaileak ohartarazi duenez, oholtza, argiteria eta soinua Udalak jarriko du.

Ixabel Agirresarobek koordinatuko du emanaldia

Maiatzaren 15era arte jasotako proposamenekin ekainaren 29ko emanaldia diseinatu du gero Ixabel Agirresarobek, eta antolaketa lanak bideratzeko parte hartzera animatu direnekin bilduko da.

Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 30etik uztailaren 3ra ospatuko diren festak antolatzen segitzeko Jai Batzordearen hurrengo bilera irekia, maiatzaren 9rako deitu dute. 18:00etan Potxoenean.

Txupinazoa

proposatzeko aukera

Ekainaren 30ean herriko festak abiatzeko txupinazoa nork botako duen herritarrek erabakiko dute aurten ere. Maiatzaren 20ra arteko epea duzue, zuen ekarpenak kultura@usurbil.eus helbidera helarazteko. Bestela, papertxo batean idatzi eta Oiardo Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian eta Potxoenean jarri dituzten kaxetan utzi ditzakezue.

Abian da egitarau lehiaketa

Ohi bezala, festetako egitarauak herritar batek landutako diseinua izango du. Jaietako programako diseinu lana hautatzeko lehiaketa antolatu dute aurreko urteetan bezala.

■ Lanak maiatzaren 20a baino lehen helarazi behar dira Usurbilgo Udaleko erregistrora, edo postaz bidali helbide honetara: Usurbilgo Udala, Kultura Saila Jose Martin Sagardia Plaza z.g. 20170 Usurbil

■ Argibide gehiagorako: 943 371 999 kultura@usurbil.eus



Yoga eskaintza zabalagoa Oiardo

Kiroldegian

Maiatzetik aurrera ostegunetan ere yoga saioak Oiardo Kiroldegian. Goizez, 09:00-10:30 artean eta arratsaldetan, 19:00-20:30 artean. Informazio gehiago: 943 372 498.

Paleta Goma

Txapelketan izena

emateko azken egunak

Maiatzean hasiko bada ere, izena alde aurretik eman beharra dago: apirilaren 22a baino lehen, zehatzago esanda.

Gizonezkoen mailan

-Paleta gomaz jokatu da.
-Bakoitzak bere izena eman behar du eta aurrelari edo atzelari jokatzeko asmoa duen. Gero lehiaketa bikoteak aldatuz izango da.
-Partidak: ostegun arratsaldetan 20:00tatik aurrera eta larunbat arratsaldetan 16:00etatik aurrera izango dira.
-Partida guztiak Aginagan jokatu dira. Finalerdiak (baleude) eta finala Usurbilen.

Emakumezkoen mailan

-Tenis edo gomazko pilotarekin jokatu da.
-Partidak astelehenetan 20:00tatik aurrera izango dira Usurbilgo frontoian.
-Lehiaketa sistema, bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.

Baldintzak

■ Izena emateko 626110923 zenbakira deitu edo emaila idatzi: huizip@gmail.com
■ Norentzat: 18 urtetik gorako usurbildarrentzat.
■ Noiz: maiatzean hasi eta Santixabeletan amaitzeko.

Ostiral honetan kiroldegian, jumping erakustaldia

Maiatzetik aurrera, jumping ikastaroa jarri nahi dute martxan. Kirol modalitate honi buruz zerbait gehiago jakin nahi duenak aukera aparta izango du ostiral honetan. Erakustaldi bat antolatu dutelako Oiardo Kiroldegian. 19:00etatik aurrera, eta doan.

Betisa, Saioa eta Patricia eskainiko dute ostiral honetako "master classe" delakoa. Erakustaldi honen ondoren, goizez nahiz arratsaldean egongo da jumping egiteko aukera. Baina adi, plaza mugatuak izango dira-eta.

Erakustaldira ezin baduzu agertu eta informazio gehiago



Ostiraleko saioaren ondoren, goizez nahiz arratsaldean egongo da jumping egiteko aukera. Baina adi, plaza mugatuak izango dira-eta.

nahiko bazenu, telefono zehetasun gehiago eske: 943 372 baki honetara jo dezakezu x-498.

Ereñozutik Herri Urratsera oinez, Andatza mendi taldekoekin batera

Maiatzaren 8an ospatuko den Herri Urrats jaialdiarekin lotuta, asteburu pasa antolatu du Andatza M.K.T.-k. Bezperan Ereñozutik Lesakara ibilaldia osatzea.

Gaua Matxinbeltzenea ostatuan igaro ondoren, igande horretan Lesakatik Senperera oinez joateko gonbita luzatzen diete mendizaleei.

Ordainketa, alde zuzenetik

Irteerarako izena eta 27 euroko ordainketa aurrez egin behar da, apirilaren 28a baino lehen. Maiatzaren 4ra arteko tartea izango dute egun pasa joan nahi dutenek. Kasu honetan, 10 euroko ordainketa egin behar da. Hain zuzen, Lizu-



Maiatzak 7-8ko asteburuan izango da. Aukeran, bi eguneko edo egun bateko irteeretan eman daiteke izena (Argazkia: Patxi Arruti, www.andatzamendizale.info).

niaga-Senpere bidea osatzeko aukera ere egongo baita maiatzaren 8an. Abiapuntuan, bezperatik txangoan irteerakoekin elkartu eta batera joango dira Herri Urratsera.

■ Irteerara joateko autobus zer-

bitzua izango da. Hemen dituzue ordainketak egiteko kontu zenbakiak:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Informazio gehiagorako: andatzamendizale.info

Eskubaloia partida

asko, etxetik kanpo

Tximeleta taldeek larunbatean Oiardo Kiroldegian egingo dituzten topaketak tarteko, etxean jokatzekoak zituzten hainbat eskubaloia neurketa, lekuz aldatuko dira:

Apirilak 23, larunbata

Urnietako udal kiroldegian:

■ Ordua zehazteke: Alebin mutilak, Buruntzaldea:

Udarregi 5B-Urnietako 5A

■ Ordua zehazteke: Alebin mutilak, Buruntzaldea:

Udarregi 6A-Urnietako 6A

Lasarte-Oriako udal kiroldegian:

■ 09:15 Alebin mutilak, Errendimendua, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Ereñtza

■ 16:00 Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Bidasoa Irun

Oiardo Kiroldegian:

■ Ordua eta eguna zehazteke, Alebin mutilak, Buruntzaldea:

Udarregi 6C-Udarregi 6B

■ 18:15 Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Bidasoa Irun

■ 20:15 Senior mutilak, 1. Nazional mailako taldea:

Ucin Aluminio Usurbil-Beti Onak

Apirilak 24, igandea

Oiardo Kiroldegian:

■ 09:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Federopticos Ikus Elgoibar

■ 10:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Eibar Eskubaloia B

■ 12:00 Kadete neskak, Foru Alundiko Txapelketa: Usurbil K.E. "B"-Edu Zumaia Pulpo K.E.

Futbola Haranen

Apirilak 23, larunbata

■ 10:00 Alebin neskak: lagun arteko neurketa.

■ 11:30 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Tolosa C.F. A

■ 15:30 Preferente mailako taldea: Usurbil F.T.-Urola K.E.

Apirilak 24, igandea

■ 11:00 Kadeteak:

Usurbil F.T.-Sporting de Herrera B

Pilota partidak

Apirilak 22, ostirala,

20:30ean Usurbilgo frontoian

[Udaberri lauterdiaren txapelketa](#)

Kadete Lehen Maila

PAGAZPE - AÑORGA

(Aimar Iruretagoiena) (Azpiroz)

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Munalurran, gutzit berriua, 60 metro, 140.000 euro. TI:636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanporaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela gutziak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitxi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanporaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

Hiru gelako pisu bat alokagai erdialdean. Igogailua, gutzit kanporaldera. tel:630713583

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Behoko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Moto-

rra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People.125.618.963.385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Atxega jauregian plater garbitzailea behar dugu. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajuregia.com

Estetizista bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. 943361971

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. Tel. 629 110 310.

Etxe etxe txakurri ilea mozteko eskaintzen naiz, material gutziarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehalan lanean hasiko

nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehalan lanean emakume eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeko garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluarekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)



Zorionak Aitor eta Gorka!! Apirilaren 18an 5 urte egin dituzue, amatxo eta familiaren partetik muxu asko.



Zorionak

Mare!!

Apirilaren 18an 4 urte bete ditu gure etxeko printzesak. Muxu asko asko familiaren partez.



Zorionak

Eneko!

Apirilaren 19an, 4 urte bete dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jatekoren batean harraskako garbiketarak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Espe-rirentziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propa- ganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari- tzeke edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiket- an. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lane- tan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Or- duka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen- tziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Or- duka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen- tziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mu- tilla, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen espe- riencia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia asko- rekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, hel- duak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 ur- teko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketara, plan- txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat es- kaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoi- tzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbi- keta egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, errefe- rentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko la- nak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketara... orduka. Gauetan pertsona hel- duekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua- rekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna beze- la ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta pape- lekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egi- teko. 690146067.

BESTELAKOAK

Katu txiki bat, txuri-beltza, begi horiekin eta koilarearekin aurki- tu dugu estazio aldean. Zurea bada deitu. Tel. 616 591 199.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparituko nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mi- kro-txipa jarrita ditu. Telefono zenbakiak: 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko gara- jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbai- tek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat

salgai. Tel. 645 701 879.

Egurraekin sua egiteko eko- nomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usur- bil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (ma- rroia) Askatasuna plaza-Atxe- galde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamai- nakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu bel- tzak ditu. Deitu telefono zenbaki honetara: 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriberan eta botikarrik gabe ekoiztutakoa. 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUAra me- sedez.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe con- fort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako so- fak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@ hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure mas- kota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati- neteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehe- netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadi Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 22 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Apirilak 21 - maiatzak 01

Osteguna 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda apirila

22 ostirala

- "Zabalgarbi biluzik" hitzaldia 18:30ean Potxoenean.
- "Harpidetza afaria" 21:00etan Aitzagan.
- Zartapa antzezlan 22:00etan Sutegin.

23 larunbata

- IV. Dantza Eguna. Xehetasunak 6/7 or.
- Errausketaren Aurkako Plataforma eratzeko batzarra. 11:00etan Artzabalen.
- Tximeleta Topaketa 2016 egun osoan zehar Oiardo Kiroldegian.

25 astelehena

- Furgobaratza Usurbilgo Baratzeko Parkean 18:00etatik aurrera, tomatearen zaintzari buruzko tailerra.

Zabalgarbiko errauste-plantari buruzko hitzaldia

Erraustegia Erabakia taldeak antolatutako hitzaldiak izenburu hau darama: "Zabalgarbi biluzik; Bizkaiko gezurrak desmuntatzen". Gorka Bueno EHUko irakaslea eta Ekologistak Martxan taldeko kidea arituko da hizlari lanetan.

Zabalgarbik egun duen tratamendu-sistemarekin, "ezinezkoa da Bizkaian birziklatze tasa %50era heltzea (Europak 2020rako ezartzen duen helburua)". Gorka Buenok halaxe adierazi zigun aurreko astean eskaini zigun elkarrizketan.

"Zabalgarbi hondakinen sortzailere oso handia da: zepak, CO₂-a, eta abar. Ekonomikoki ere ez da batere negozio ona, Zabalgarbin gas naturaleko kontsumoa oso altua delako".



Gorka Bueno EHUko irakaslea da. Ostiral honetan Potxoenean arituko da, 18:30ean.

Gorka Buenok egiten duen balantzea, beraz, oso negatiboa da. "Gipuzkoan arreta jarri behar du Aldundiak, akats berberak ez errepikatzeke. Gaur badakigu errausketak ez daukala zentzurik. Ez hemen, ez inon. Alternatiba da balioztatze materiala, birziklatzea eta berrera-biltzea. Eta alde zuzenetik hondakinak sortzearen prebentzioa, noski".

"Zartapa!" antzezlan, ostiral honetan Sutegin

Katiuska Antzerki Taldearen emanaldia, ostiral honetan, 22:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak, egunean bertan salgai 6 eurotan. "Euren errealitatean etsi aurretik Astiazaran doktorearengan jarri dute itxaropena zazpi lagunek. Zein da Astiazaran doktorea hain ospetsu egin duen sekretua?".

Harpidetza afaria Aitzaga elkartearen

Ostiral honetan, "herriko presoei euskal prentsa helarazteko urteroko harpidetza afaria egingo da Aitzaga Elkartearen, barrikotearen menuarekin". Afaritarako txartelak aurrez eskura daitezke Aitzaga tabernan, 20 eurotan. 14 eurotan ikasle eta langabeentzat. 21:00etan hasiko da afaria.

Datozenak

Tomatearen zaintzaren inguruko tailerra

Furgobaratza delakoak Gipuzkoako Baratzeko Parke Sarean ahokularitza zerbitzua eskaintzen du. Datorren astelehenean, apirilak 25, arratsaldeko 18:00etan Usurbilgo Baratzeko Parkera dator. Tomatearen zaintzaren inguruko tailerra eskainiko du.

'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroko saio berri bat

Apirilaren 30ean larunbata, 09:00-13:00 artean, "Landareen bizimodua. Ilargiaren eragina" hitzaldia Potxoenean. Hizlariak: Xabier Akizu eta Jakoba Errekondo. Izena emateko edota informazio gehiagorako: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus



Jakoba Errekondok eta Xabier Akizuk gidatuko dute datorren asteko saioa.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URPI Leihok
urpileihok@gmail.com
943 50 80 95 • 688 81 93 33
nagusia 10 (atzek) USURBIL

ELORZA
OBRAK ETA ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com




Birziklatzearen labirintoa
 Izan zaitez gure taldekidea
 Apirilaren 21etik maiatzaren 4ra
 Easo Plaza, Donostia

ORDUTEGIA
 Lanegunetan
 10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00
 Larunbat eta igandetan:
 10:30 - 14:00 / 17:00 - 20:00



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu apirilaren 22an

EDERTU ZAITEZ!

Loui Lizarralde
ESTILISTA

PREZIO BAXUAK
KALITATEZKO
PRODUKTUEKIN eta
PROFESIONALTASUN
HANDIAREKIN

KALIFORNIAR
METXAK + ORRAZTU
29€

L'ORÉAL
PROFESSIONNEL

ESTETIKAN TARIFA BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

Jwar
ESTETIKA

EZKONDUKO ZARA?
EMAZTEGAI TRATAMENDU BEREZIAK
TRATAMENDU KOKTEL EZBERDINAK

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

APIRILEKO ESKAINTZA

GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:
LEHEN 30€ - ORAIN 25€

ADINAREN AURKAKO
TRATAMENDU BEREZIA:
LEHEN 40€ ORAIN 35€

AURPEGIKO GARBIKETA: 20€

424 SAKONEKO NUTRIZIO
ZELULARRA:
LEHEN 50€ ORAIN 40€

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

Benia!

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOANI!

9.00etatik 19.00etara zabalik
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951

GOLDWELL
ELUMEN
mista
ileapaindegia